


Milaka argi Iruñerriko IKA euskaltegien alde

INSTITUZIOETATIK, 2012ko uriaz geroztik, ez dute euro bakarria ere jaso IKA euskaltegiek Iruñerrian. Diru-laguntzak izoztuta zituzte-nez, iaz, *Milaka argi Nafarroan* kanpaina abiarazi zuten. www.milaka-argi.com webgunean diru ekarpenak egin daitezke eta diru-laguntza bakoitzeko argitxoa piztuko da mapan. Aurtengo laguntzek kolore berdea izango dute, joan den urtekoek horia



zuten. Argi hori sortari esker, 30.000 euro lortu zituzten iaz.

Galiziera hiztunen eskubideen zapalketa txostenean

GALIZIERAREN AURKAKO erasoak salatu nahi dituzte txostenaren bidez eta gobernuak hizkuntza legeak betearaztea. A Mesa pola Normalización Lingüística erakundea ari da hizkuntza eskubideen bortxaketan txostena egiten. Haren asmoa Unescori emaitza

aurkeztea da. Ahalik eta hizkuntza gehienetara itzuli nahi dute dokumentua, galiziera hiztunei gertatzen zaiena nazioartean hedatzeko. 1954. urtean ere aurkeztu zioten Unescori txostena. Francoren diktadura garaian jasandako jazarpenak salatu zituzten orduan.

Bahea

Karlos Argiñanok Bai ziurtagiridunen aldizkarian esanak:

“Interesgarria da gu bezalako jende xelebreak euskararekiko konpromisoa adieraztea. Hala ere, gaia korapilatsua da. Gertatu izan zait jendeak galde-tzea, ‘baina zer egiten duzu zuk Antena3 katean?’ Ba besteak beste, gure kulturari, gure produktuei, gure hizkuntzari gorazarre egin. Eta nik bezala, euskal sukaldariak kanpora ateratzen garenean gurea maitasun handiz saltzen dugu: hemengo itsasoa, hemengo sagardoa edo txakolina, gure baratzeko produktuak... eta horrekin batera, gure kultura eta gure hizkuntza.

Argiñano jatetxean eta Baint-en Bai Euskarari Ziurtagiria duzue. Zergatik hartu zenuten Ziurtagiria?

Zergatik ez? Horrek beharko luke galdera. Guk naturaltasunez hartu dugu Ziurtagiria, eta harrotasunez jarri dugu gure etxean. Etxe honetako lehenengo hizkuntza euskara da”.

EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

Kutxaren eta EAJren erantzukizuna

GIPUZKOAKO HERRITARRAK kalteturik aterako dira, Foru Ogasunak Kutxari –orain Kutxabanken barruan– 30 milioi euro ordaindu beharko dizkiolako, 2001ean gaizki egindako inspekzio batengatik. Orduan EAJ zegoen foru erakundearen agintean eta bere kudeatzaile politikoei dagokie gertatutakoaren ardura. Espainiako Auzitegi Gorenak Kutxak bere garaian jarritako helegitea onartu du eta ebazpenean dio 2006an Kutxak kopuru hori ordaindu behar izan zuela. Kutxak 2001 eta 2005 artean sozietate-zerbaren aitorpenen bidez 21,4 milioi euro ordaindu zituen –interesak barne 30 milioi euro dira–; bada Gorenak kopuru hori ordaintzetik salbuetsi du. 1997tik 2004ra Kutxak Repsolen inbertsioak egin zituen, La Caixa eta Caixa Catalunyaekin batera espresuki sortutako Repinves SA elkartearekiliz. Horrek Kutxari ahalbidetu zion fusioentzako erregimen berezian sartzea eta motibazio ekonomiko bat egonez gero –eta ez zerga gutxiago ordaintzeko intentzio soila– kenkari fiskalak izatea.

Kontu honetan, erantzukizun bikoitza dago. Alde

batetik, Fernando Spagnolo presidente duen Kutxarena, ingeniariaritzaren fiskala erabili baitzuen zerga gutxiago ordaintzeko; horrek Gipuzkoako lurraldearekiko konpromiso sozial eta politiko eskasa agerian utzi du. Bestetik, EAJrena, orduko buruzagi nagusi Roman Sodupe eta Antton Market zituela. Politikariok, kudeaketa kaskar horrekin, herentzia milioidun negatiboa utzi dute, duela 13 urte gainbegiratu ez zuten operazioaren ondorioz.

Orduko Kutxaren eta Gipuzkoako Ogasunaren kudeatzaileak finantza eszenatokitik desagertu dira, baita politikatik ere. Ez al lukete aurpegia eman behar eta euren erantzukizuna onartu? 30 milioi euro horien ordainetan herritarrak kaltetuta aterako direnez, Gipuzkoako EAJk ez al du operazioaren inolako ardurarik bere gain hartu behar? Besteei eragindako mina onartzeko eskatzen dietenek, eredu izan behar lukete, orain eta hemen.

Juan Mari Arregi

